

1000000

ASTEARTEA
2024/12/03
13. urtea, 2.068. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

Oihana Iguaran
amasarra
finalean
izango da // 5

Herritarrek irmo salatu dute azken indarkeria matxista kasua

Bikotekide ohia erailtzeagatik gizonezko bat atxilotu zuten larunbatean Villabonan, eta elkarretaratzeak egin dituzte salatzeko; greba feministatik urtebetera, zaintza sistema publiko eta komunitarioaren alde lanean jarraitzen dutela adierazi dute // 2



TOLOSA BABARRUNAREN FESTA

Uztaren atzerapenak behartuta, abenduaren 14an ospatuko da babarrunaren festa; ohiko lehiaketak eta azoka izango dira goizean, eta arratsaldean, erromeria, txaranga doinuak eta Gozategi taldea // 3

CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

USURBIL
AGERREAZPI BERRI

60 ETXEBIZITZA
4 ERAIKINETAN

- 2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- GARAJE ITXIA AUKERAN
- ZONALDE ETA TERRAZA PAREGABEAK

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Indarkeria matxistaren aurka azaldu da eskualdea, beste behin

Larunbatean gizonetako bat atxilotu zuten Villabonan, bikotekide ohia erailtzeagatik; indarkeria matxistak Euskal Herrian utzitako seigarren biktima izan da

Erredakzioa

Larunbatean, Ertzaintzak 53 urteko gizon bat atxilotu zuen 45 urteko emakume bat —bikotekide ohia— suzko arma batekin hiltzea egotzita. Gizonak Pasaian erail zuen emakumea eta ondoren ihes egin zuen autoan. Villabonako Udaltzaingoaren bulegora joan zen, eta bikotekide ohia hil zuela aitortu zuen. 2024. urtean indarkeria matxistak Euskal Herrian utzitako seigarren biktima izan da; zazpigarrena Euskal Herritik kanpo izandako emakume euskaldun baten hilketa kontuan izanda.

Azken erailketa hau eta oro har, indarkeria matxista kasu guztiak salatzeak elkarretaratzeak egin zituzten atzo, eskualdean. Lurgatz Talde Feministak deituta Villabona eta Zizurkil arteko oinezkoen zubian elkartu ziren, eta Tolosan bi elkarretaratze egin ziren: Tolosako Mugimendu Feministak deitutakoa eta Itaiak egindakoa. Herritar askok egin zuten bat deialdiekin eta bertan izan ziren ere hainbat udal arduradun. Villabonako Udalak kolpe gogorra izan dela esan zuen: «Bizi duguna, eta bizitzen ari garena, oso lazarria da eta gure herrian eragindako kolpea, oso gogorra. Indarkeria matxista lehen mailako gaitza da. Jendarte osoari eragiten dio, egunero dugu horren berri, eta gertatutakoa horren adibide garbia da». Udal baliabideak biktima



Lurgatz Talde Feministak deituta Villabona eta Zizurkil arteko oinezkoen zubian atzo egindako elkarretaratzea. A.I.

maren senide eta lagunak eskuratu jarri ditu udalak.

Tolosako Udalak ere gertakaria gaitzetsi zuen. Tolosako Asanblada Feministak deitutako gaitzespen-mobilizazioarekin egin zuten bat eta senide zein ingurukoei elkartasuna adierazteaz gain, hilketa salatzeak Euskal Herriko mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeak deia egiten ziren herriarrei. «Gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu Euskal Herrian gertatu den azken erailketa matxistaren aurrean».

Indarkeria matxistarekin lotutako kasu gehiagok zipriztindu dute Tolosaldea asteburuan. Izan ere, Instagramen, @denuncias_euskalherria kontuak arlo

ezberdinetako gizonak egindako erasoak dozenaka testigantza bildu ditu, eta horietako bitan Tolosako tatuatzaile bat aipatzen da.

GREBA FEMINISTA GOGOAN

Eta hori guztia, greba feminista orokorretik urtebete pasa denean. Hori izan zuten gogoan hain justu, larunbatean. Eskualdeko Mugimendu Feministak deituta mobilizazioa egin zuten Trianguloan eta bertan zaintza sistema publiko eta komunitarioaren alde lanean jarraitzen dutela adierazi zuten.

Hain justu, salatu zuten egungo sistemak «gutxi batzuen mesedetan» ekiten duela, «gure burua, komunitatea eta bizi garen

inguruaren suntsiketa eraginez». «Zaintza erregimen kolonial, patriarkal eta kapitalista salatzeak, instituzioak, patronala eta gizonak interpelatu ditugu, gure bizkarrera negozio gehiagorik egin ez dezaten», adierazi zuten.

Hala, mezu hori Euskal Herriko gehiengo sozialean txertatzeraino iritsi dela uste dute, eta horren adibide moduan, duela urtebete deitu zuten greba feminista orokorraren «arrakasta» jarri zuten. «Hasi dugun bide honetan zalantzarik gabe inflexio puntu handia izan zen greba: kaleak hartu genituen zaintza eskubide kolektiboaren alde sistemaren zaparrada guztien gainetik. Historikoa izan zen».

Jabi Arana Alberdi, eragile nekaezina



Hilberria

Jabi Arana Alberdi hil zen igandean, hilak 1, 72 urte zituela. Ezaguna zen oso eskualdean, izan ere, eragile nekaezina zen. TOPA plataformako elkarretaratze, prentsaurerako eta deialdi guztietan egoten zen, eta osasungintza publikoko langilea izaki, kalitatezko osasungintza publikoaren aldeko borrokan aritu zen burubelarri, heriotzak eraman duen arte.

2011. urtean eskualdeko hainbat eragilek sortu zuten TOPA eta Jabi Arana bertan aritu da jo eta su.

28 urtez Tolosako Amartzotz auzoko familia medikua izan zen. eta 2020an, erretiroa hartzeraz gero, auzotarren omenaldia jaso zuen.

Auzotarrek txalo artean hartu zuten bertara iritsi zenean, eta ondoren agurra dantzatu zioten, bertsoa kantatzen zioten bitartean: *Jabi, aritu zarenez /gurekin buru eta bihotz /guztiz eskertuta gaude/amaroztarrek ta Amartzotz.*

Amaroztarrek orduan eskertu zioten auzoaren alde egindako lana, eta ziur eskualdeak ere eskertuko diola osasungintza publikoaren alde egindako guztia. Ez baita gutxi izan.

Hilberriak eta urteurrenak



Jabi Arana Alberdi

Helburu batek elkartu eta hamahiru urtez bidelagun, osasungintza eta publikoa, uztarri berean jardun, eskubide bat ezkatutua bihurtu zedin ezagun, nekaezina, eragilea, denok zenbat zor dizugun, eskerririk asko, Jabi, bidai on, TOPAkide eta lagun.

TOPAko zure lagunak



TOLOSA, 2024ko abenduaren 3an.



Jabi Arana Alberdi

Zorraz zor Jabi, Tolosaldeko osasungintza publiko egokia zor dizugu. Saiatuko gara. EH Bildu Tolosaldea



TOLOSA, 2024ko abenduaren 3an.



Nekane Goikoetxea Arandia

Baina gu ez bait gara hemen geuk sortu hutsean ari, guztiona den bertso hau eskainia amonari, bizitza osoan zehar gu zaindu gaituenari. Oier eta Laida



UGARTE-AMEZKETA, 2024ko abenduaren 3an.

Leyre Carrasco

Amaitu da itxaronaldia eta iritsi da Tolosako babarrunaz gozatzeko garaia. Abenduaren 14an, larunbata, ospatuko da aurtengo Babarrunaren Festa, Tolosako Udalak, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Elkar-
teak, Babarrunaren Kofradiak eta Gure Kaiola elkar-
teak elkarlanean antolatuta.

Triangulua plazan izango da jaiaren epizentro nagusia, bertan kokatuko baita azoka berezia. Denera 15 postu izango dira, 09:00etatik 14:00etara, eta plazako alboetako batean Tolosako Babarrunaren Ekoizleen XXX. Lehiaketa ospatuko da. Hain justu, 21 ekoizleren babarrunek parte hartuko dute eta 06:30ean hasiko dira prestaketa lanekin. Tolosako Babarrunaren Kofradiako kide batek eta Alondegia jatetxe-ko Andoni Riaño, Ama jatetxe-ko Gorka Rico eta Iribar jatetxe-ko Pili Manterola sukaldariek osatuko dute epaimahaia, eta 12:45ak aldera jakinaraziko dute irabazlea.

San Frantzisko pasealekuan, berriz, Gure Kaiola elkar-
teak antolatutako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren XXXVII. edizioa izango da. 22 lehiakidek parte hartuko dute, 08:30ean hasita, eta ekoizleen iazko lehiaketan txapeldun izan zen Zumaia-ko Joxe Mari Aramendiren babarrunak prestatu beharko dituzte. Ikatzat tabernako Kontxi Dorron-
soro, Saikin tabernako Sonia Alkala, Bentaldea jatetxe-ko Encarna Bengoetxea, Ama jatetxe-ko Javi Rivero eta Felix Belaunzar-
an sukaldariek osatuko dute epaimahaia, eta 13:30ean iragarriko dute irabazlea. Aurten, gainera, sari berezia banatuko dute. Izan ere, emakumearen parte hartzea areagotu nahi dutela esan du Antton Iglesias Gure Kaiola elkar-
teko lehendakariak.

Horrez gain, uzta berria dastatzeko aukera ere izango da, Ba-



Pasa den urteko Babarrun Festaren une bat. R. CALVO

Hemen da perla beltzaren festa

Abenduaren 14an ospatuko dute Tolosako Babarrun Festa; goizean, azoka berezia eta lehiaketak izango dira, eta arratsaldean, emanaldi berezia egingo dute

barrunaren Kofradiak 12:00etan babarrun platertxoak banatuko baititu Triangulua plazan. Ondoren, ohitura bihurtu den herriko elkar-
te eta tabernetan babarrun jateak egingo dira.

UZTA «ZAPORETSUA»

Urte berezia izan dela nabarmendu du kofradiako Armintz Gorrotxategik, «eguraldia eta natura arrazoiak medioa atzeratzea eragin baitu aurtengo uzta». Hala ere, itxaronaldiak merezi izan duela berretsi du, heldutako uzta «zaporetsua eta distiratsua» izan baita.

Era berean, Xabier Goikoetxea Babarrunaren Ekoizleen Elkar-

teko ordezkariak aurtengo alea «ezaugarri bikainekoa» dela nabarmendu du: «36 kide gara elkar-
tean, 20 hektarea inguru ditugu, eta 12.000 kilo bildu dira aurten; bereziki asko jaitsi da kostaldeko gunean. Ekoizle gehien barrualdekoak gara, baina kostaldean dugu azalera handiena. Aleari dagokionez, prestatzeko lan handiagoa emango du, baina aurreko urtekoa baina hobe dela esango nuke».

Aitor Agirresarobek Tolosako Udaleko Merkataritza, Turismo eta Azokak Saileko zinegotziak ekoizleen lana aitortu eta bertako produktuen balioa nabarmendu ditu: «Ez da urte erraza

izan ekoizleentzat, baina lan mardulari esker, berriz ere kalitate-
rik goreneko eskaintza izango dugu».

DANTZARAKO TARTEA

Egun osoan zehar ez da girorik faltako. Goizean, esaterako, Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Udaberri Dantza Taldea eta trikitilariak ibiliko dira kalez kale. Arratsaldean, berriz, erromeria eta saio berezia egingo dute, lehen aldiz. Bertan izango dira, hain justu, trikitilariak, dultzaineroak eta txistulariak eta emanaldi berezia eskainiko dute elkarrekin, 18:00etatik aurrera, Berdura plazan.

Tolosako Udal Txistulari Bandaren azkenaldiko joera emanaldietan Tolosako publikoarengana gerturatzea dela azaldu du Leire Retegi Tolosako Udal Txistulari Bandako kideak. Horregatik, emanaldiak «ikusgarritasun nabariagoa» izan dezan trikitilari eta dultzaineroekin elkartuko direla kontatu du, «eta ordu baten bueltako dantza doinuak eta dantza plaza izango dugu». Bertan, gainera, Udaberri Dantza Taldeko kideen parte hartzea ere izango da, beraz, herritar guztiak animatu nahi izan ditu dantzaz gozatzera.

Erromeriaren ostean, Jainekin Txaranga ibiliko da kalez kale. Bi txanda egingo ditu; lehen-
a 20:00etan eta bigarrena, 00:30ean. Tartean, Gozategi taldearen kontzertua izango da 22:30ean, Plaza Berrian.

AUTOBUS ZERBITZUA USABALDIK

Esneki azoka berezian egin zen moduan, egun horretarako autobus zerbitzu berezia antolatu du udalak, kanpotik datozen bisitariek eta eskualdeko herritarrek autoak aparkatzeko erraztasun handiagoa izan dezaten. Usabal industriaguneko eta kiroldegiko aparkalekuak erabiliz gero, zuzenean erdigunera autobusez joateko aukera izango da, doan.

Lau geldialdi izango ditu: Usabal kiroldegiko, Oria beilatokiko eta Iruñea etorbideko –Amarotz– autobus geltokietan; handik, zuzenean erdigunera joango da eta geldialdi bakarra egingo du Jon Andoni Irazusta pasealekuaren hasierako geltokian, bidaiariak utzi eta hartzeko.

09:30ean hasiko da zerbitzua kiroldegitik eta 14:30ean aterako da azken aldiz, industrigune aldera, Jon Andoni Irazusta pasealekutik. Tartean, etengabe ibiliko da bueltaka. Hiribusak, berriz, ohiko ordutegi eta ibilbidea jarraituko du egun osoan zehar.

Hilberriak eta urteurrenak

Edurne Ormazabal Lasa



LASKORAIN IKASTOLAKO
kideen izenean

TOLOSA, 2024ko abenduaren 3an.

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Lokal berria izango du aurrerantzean, Intujai antzerki taldeak

Espazio egonkorra zabaltzearekin Zikloia antzerki jaialdi ibiltaria agurtzen ari dira; larunbatetik hainbat jarduera izan dituzte eta bihar izango dute azken ikuskizuna



Ziggy Docherty eta May Gorostiaga, Gudari kalean zabaldu duten lokalaren atarian. A. ARROYO ASKARAI

A. Arroyo Askarai

Antzoki-argien azpian aurkeztu du Intujai antzerki taldeak bere espazio berria. Tolosako Gudari kalean zabaldu dituzte ateak eta



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita lau urriaren hogeita hamaikan egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: Behin betiko onespina ematea Tolosako «20. Amarotz» esparruko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketari (ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende). Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2024ko azaroaren 28an, 230. zenbakian.

Tolosa, 2024ko azaroaren 28a
Kristina Pelaez Errazkin,
zinegotzi delegatua

bertan gauzatuko dute jarduna hemendik aurrera. Lekua inaurratzearekin batera, baina, agur esango diote Zikloia jaialdiari, eta arrazoa azaldu du May Gorostiaga arduradunak: «Formatu txikiko antzerki jaialdi ibiltaria zenez, zentzua galtzen du leku egonkor bat lortu dugun heinean. Dena dela, jarduerak egiten jarraituko dugu».

«Espazio txiki bat, formatu txikiko ikuskizunak eskaintzeko», horrela hitz egin du Gorostiagak lekuari buruz eta, hain zuzen, larunbatetik hasi eta biharrera bitarte denetariko jarduerak antolatu dituzte Zikloia jaialdiren hamabosgarren egitarauaren barruan.

DENETARIKO ESKAINTZA

Eskaintza horrez gain, helduentzat zein haurrentzat denetariko ikastaroak emango dituztela iragarri dute.

Eskerrak ere eman dizkiote Tolosako Udalari «bidea errazteagatik eta laguntzeagatik» eta Goiuri Eceiza kultur zinegotziak nabarmendu du Tolosa herri

«oso sortzailea» dela eta fantasiatzko ipuinek «ukitu zitekeen etxe bat» behar zutela: «Proiektu erraldoiak eta nazioarteko jaialdiak txalotzen ditugu, baina kultura horrelako leku txikietan sortzen eta jaiotzen da».

KIDE BERRIAK

Proiektuaren parte izango da Ziggy Docherty ere, zehazki, haurrentzako antzerki tailerrak emango baititu. Rol berria pozarren hartu duela adierazi du, eta horrelako espazioen beharra nabarmendu: «Inguruan beti izan ditut artistak, zeinak borrokatu duten horrelako espazioak sortzeko. Eskerrik asko lortzeagatik, herriarentzako ere beharrezkoak baitira».

Hari berari tiraka gaineratu du ezinbestekoa dela haurrei ere espazioa zabaltzea, horrela eurak ere espazioa haiena sentituko dutelako: «Antzerkia beraiekin partekatzea magia hutsa da. Urteak pasa ahala jolastea zer den ahaztu egiten zaigu, eta haiek gogorazi egiten digute bizitzan jolastea beharrezkoa dela».



Basterretxearen 'Goldea' eskulturaren egin dute omenaldia. IÑIGO TERRADILLOS

Aitortza egin dio Tolosak Nestor Basterretxeari

100 urte bete dira aurten Nestor Basterretxea artista jaio zela, eta omenaldia egin diote Tolosako Udalak eta Tolosako Ekinbide Etxeak

Erredakzioa

Joan den larunbatean omenaldia egin zioten Nestor Basterretxea artistari, Tolosako bere *Goldea* eskulturaren inguruan. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Tolosako alkate Andu Martinez de Rituerto, Kepa Goikoetxea, CIT-TEEko lehendakaria, Gorka Basterretxea, Nestorren semea, eta eskulturak jartzeko egitasmoaren sustatzaile taldeko parte izan zen Mitxel Perales tolosarra.

Basterretxeak lotura estua izan zuen Tolosarekin bere ibilbidean zehar. Besteak beste, Plaza Zaharreko Idiakez Jauregiaren berritze lanetan esku hartzea izan zuen; Tolosako hainbat egitasmotarako kartelak egin zituen, hala nola, CIT-TEEren 25. urteurrenean; Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako lehen edizioako sari nagusia ere berak diseinaturakoa izan zen, baita Altzoko Handiaren bizitzan oinarritutako operan erabilitako txotxongiloak ere.

ONDAREAREN PARTE

Andu Martinez de Rituerto alkatetik azpimarratu du adibide ho-

riek guztiak «Tolosak duen ondare aberatsaren parte» direla: «Gure kale, plaza eta lorategiak obra askoren erakusleho dira. Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Koldobika Jauregi, Rikardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Iñaki Epelde... Aire librean halako kultur bilduma izateagatik zorte handia dugu Tolosan, eta dagoen balioa eman behar diogu. Hori horrela izan zedin Nestor Basterretxeak egindako ekarpena ere garrantzitsua izan zen. Baina bere legatua betierekoa da: obra materialak ez ezik, horiekin transmititu nahi izan zituen balioak ere utzi baititu. Ez Tolosan bakarrik; bere dimentsioa nazio mailakoa da. Euskal kulturarentzat giltzarri izan zen».

Diziplina ezberdinetako kulturekin loturak egiteko Tolosako Ekinbide Etxeak egindako lana ere aitortu eta eskertu ditu, bide batez, Martinez de Rituerto Tolosako alkateak. Mitxel Perales, Juan Garmendia Larrañaga, Antxon Elozegi, Nisa Goiburuedo Iñaki Epelde izan ziren, besteak beste, bide horretan lan egin zutenak.



2024-12-03
107.6fm
Ataria.eus

Idortu ez dadin, 365 egunetan ekin



Larrialditik indarraldira igarotzeko garaia da

Euskalgintzak euskararen normalizazio prozesua onbideratzeko urtetzat jo du 2025a; Iragarri dute mobilizazio sozial «handi» bat prestatzen ari direla 2025eko abendurako



Tolosako Samaniego ikastetxean Euskararen Egunaren harira egindako muralaren artxiboko irudia. JOSU ARTUTXA

Erredakzioa

Euskalgintzak argi hitz egin du; larrialditik indarraldira igarotzeko garaia da. Larrialdi gisa izendatzeko arrazoi bat baino gehiago dago, baina hiru argudio nagusi eman ditu. Lehen da eremu euskaldunenetan atzera egiten ari dela euskararen erabilera, eta Euskal Herri osoko joera dela euskaraz erdaretan baino errazago moldatzen diren hiztunak gero eta gutxiago izatea.

Bigarrena da eremu zabal batean, euskarari ukatu egiten zaiola ofizialtasuna, nor izatearen gutxieneko aitortza, taxuzko politika publikoak aurrera eramateko aukera; ofiziala den eremuan, berriz, euskararen aldeko hizkuntz politikak eraisten ari diren epai sorta gertatzen ari da, normalizazioaren eta biziberri- tzearen aurkako oldarraldi judi-

zial gogorra. Eta hirugarrenik aipatu du globalizazioaren egungo aldaera homogeneizatzailaren eraginez, hizkuntza hegemonikoak are eta hegemonikoago direla, eta minorizatuak are eta zaurgarriago.

Egoera ikusita mobilizazio sozial «handi» bat prestatzen ari dira 2025eko abendurako, Euskararen Egunaren inguruan.

KALE ERABILERA

Tolosaldeko herri guzti-guztietan euskararen kale erabilera %50etik gorakoa da, baina horrek ez du esan nahi eskualdea larrialdi egoeratik salbu dagoenik.

Tolosaldeko herri euskaldunenetan euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte handitzen ari da. 2022ko datuen arabera herrietan sumatzen da euskararen erabilera jaisten ari

dela, eta ikastetxeetan ere gero eta kezka handiagoa dago. Datu esanguratsu bat da Elduain %100 euskaldun izatetik %90 izatera jaitsi dela. Jaitsiera orokorrean eman da, baina, bereziki herririk euskaldunenetan edo arnaguneetan. Euskara da Tolosaldean herritar gehienek lehen hizkuntza (% 53), eta hamarretik ia batek gaztelaniarekin batera jaso du euskara etxean (% 8); % 39k erdarak dituzte lehen hizkuntza. Esaterako, 1991. urtean, 20 herritan hamarretik zortzik zuten euskara lehen hizkuntza. Gaur egun, ordea, zortzi herritan bakarrik gertatzen da hori. 1991n, %68ko ezagutzarekin, %50ekoa zen erabilera; 2021ean, %73ko ezagutzarekin, %43koa da.

Tolosaldeko joera da herri txiki gehienetan euskararen erabileran beherakada antzeman dutela. Azken urtean bi herriren in-

guruko datuak jaso dira; Ibarra eta Tolosa.

Ibarran azken 20 urteetan lau puntu jaitsi da euskararen erabilera. Elkarrizketen %52,3 egiten da euskaraz; %43,4, gaztelera; eta %4,3 gainerako hizkuntzetan. 2023ko azterketan 864 elkarrizketen eta 2.501 hiztunen informazioa bildu dute. Gazteen artean (%72) erabiltzen da euskara gehien, eta gutxiago haurretan (%67). Jarraian, heldu-gazteek darabilte gehien (%50); hurrena, heldu-nagusiek (%39) eta, gutxien, adinekoek (%37). Dena dela, bada alderik gazteen artean ere: 24 urtez azpikoen %68k erabiltzen du; eta 25 urtetik gorakotetan, berriz, %41ek.

Tolosan bere aldetik, euskararen erabilerak hirugarren aldiz gaintitu du %50eko langa. 1985etik orain arte erregistratutako daturik altuena da, 2022ko

neurketarekin batera, iazko kale neurketak emandakoa: %52,3an egiten da euskaraz; gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta adinean zenbat eta gorago joan, orduan eta txikiagoa da erabilera.

IKASLEEK, GORA

Tolosan erabilerak eta ikasleen kopuruak egin dute gora. Aitzol Udal Euskaltegiko 2024-2025 ikasturterako izen ematea nabarmen igo da, 240 ikasle baino gehiagok eman dutelarik izena.

AEK euskaltegia ere pozik dago ikasturte honetako datuekin. Tolosaldean 61 ikasle dituzte eta 10 ari dira autoikaskuntzan.

Pasa den ikasturtean Zizurkil, Asteasu, Anoeta eta Alegian sortu ziren taldeak eta aurten jarraitzen dute. Ikaztegietan 6 pertsonako taldea sortu dute gainera.



BISITA

Mikel Pagadi

elkar www.elkarargitaletxea.eus



Euskaldunen anbiziorako eta aktibaziorako eredu den herria

Tolosan euskararen kale erabileran emandako gorakadaren gakoak azaldu dizkie Kike Amonarrizek Europako hizkuntza gutxituen aldeko eragileei

Josu Artutxa Dorronsoro

2021ean, ehun urtean lehen aldiz, gaztelania baino euskara gehiago entzun zen Tolosako kaleetan, eta azken bi urteetan %50eko langa gaitututa du euskararen erabilera. Europa mailan hizkuntzen inguruan lan egiten duten zenbait erakunderengana heldu zen albiste, besteak beste, Europako Hizkuntza Gutxituen Aldeko Eragileen sareko –ELEN– lehendakariarengana, Elin Haf Gruffydd Jones galestar euskaldunarengana, alegia.

Jonesek berak, Euskalgintza-ren Kontseiluaren bitartez, Tolosako kasuaren berri emateko eskaera egin zion Kike Amonarriz soziolinguista tolosarrari. Hain justu, azaroaren 9an, ELEN-ek Bilbon egindako 2024ko Batzar Orokorrean, hitzaldia egin zuen tolosarrak. Bere ustez, «adibide egoki bat» da Tolosakoa. Ia 40 urtetan, %28tik %53ra igo da euskararen kaleko erabilera Tolosan. «Ez da ohikoa; ia bikoiztu egin baita», esan du. Euskal Herriko neurketak ikusita, igoera ia bi puntukoa izan da –1989ko %10,8tik, 2021eko %12,6ra–. «Kontuan izan behar da Tolosa dela kaleko erabilera datuen neurketak egiten dituen herri bakarrenetakoa».

Hamarkadetako elkarlanarekin batera, euskararen erabilera-ren gorakadan gakoak izan diren aktibazioa edo anbizioa bezalako faktoreak aipatu zituen Amonarrizek bere hitzaldian. Lau eragile multzo nagusi identifikatzen ditu: euskalgintzakoak, eta guztien artean nabarmenena, Galtzaundi Euskara Taldea; erakundeak, eta horien artean, Tolosako Udala; hezkuntzakoak, hiru ikastetxerekin; eta askotariko eragile sozialak. «40 urteotan, eragile guztiak, konprometituta

eta elkarlanean aritu dira, jarraitkortasunez, baliabidez txukun hornituta eta teknikari eta boluntario sare handi batekin», esan du tolosarrak. «Anbizio errealista bat izan dugu, eta herri ekimenetik sortutako esparru oso batek euskaraz funtzionatu du», gaineratu du.

Faktore horiez gain, beste hiru ezaugarri nagusi ere nabarmendu ditu soziolinguistak. «Batetik, ekintzailertza. Ezinbestekoa da dinamika sozial indartsu bat izatea; alde horretatik, zorte handia dugu Tolosan, herri oso dinamikoa delako. Bestetik, zeharkakotasuna. Euskalduntze prozesuarekin, sektore sozial zabal bat oso konprometituta egotea lortu dugu; etortzen diren biztanle berriengana ere heldu nahi dugu. Azkenik, arnasguneen ugalketa. Kultur ekitaldi asko, eragileek edo erakundeek ezer esan gabe, euskara hutsean egiten hasi dira. Belaunaldi euskaltzale eta euskaldun bat iritsi da herrira, erabaki propioak hartzeko inoren bultzada behar ez duena». Tolosaren kasuaz hitz egitean, ondorengo nabarmendu du Amonarrizek: «Herri askotan aurkitu daitezke funtsezko ezaugarri horiek, baina ia inon ez daude guz-

tiak batera, eta gainera, denboran modu jarraituan. Hor dago gakoak».

Amonarrizek, Tolosako 1717. urteko gertakari bat azaldu zuen Bilbon. Alkatearen eta apaizaren arteko gatazka bat izan zen; udal agintariaren emaztea deitu zuten deklaratzera, eta eztabaidaren lekuko izan zela baieztatu zuen: «Eztabaida entzun dut, baina ez dut ezer ulertu». Gertakari horretatik bi ondorio atera zituen Amonarrizek: «Jende gehiena euskaldun elebakarra zen, baina eliteak jada erdaraz ari ziren haien artean». 1879an, Gipuzkoan %96 euskalduna zela kalkulatu zen, eta horietako asko elebakarrak ziren.

'EUSKARAZ BIZI' ETA HAURRAK

Euskararen erabilera garapena azaltzeko, bi garai azpimarratu ditu: «Tolosa oso herri erdaldundua izan zen 1939tik 1980ko hamarkadara bitarte, baina ingurune oso euskalduna zuen. Eskualdeak zuen ahalmen euskaltzale hori gureganatzen jakin dugu eta, Tolosa bera, inguruko arnasguneentzat lagungarri izatea lortu dugu. Hala ere, gakoetako bat, 1980ko hamarkadaren hasieran eman zen, Laskorain Ikastolan. Euskara erakustea ba-

karrik nahikoa ez zela eta, hiztun aktiboak sortzeko eta erabilera bultzatzeko, *Euskaraz Bizi* metodologia jarri zuten martxan. Gerora, beste bi ikastetxeekin koordinatuta, hezkuntza-sistema osoak helburu horrekin bat egitea lortu da, bakoitza bere ezaugarriekin».

Ikastetxeetan, besteak beste, ohikoa ez den beste ezaugarri bat landu dela esan du Amonarrizek: motibazioa. «Leku askotan ez da gertatzen, eta zentzu horretan, hutsune handi bat daukagu. Ikastetxeak euskara edo euskaraz irakastera mugatzen dira. Metodologia horri esker, gaur egun, euskararen erabilera kontzientziatutako masa zabal bat daukagu Tolosan».

Halaber, ama hizkuntza euskara ez duten etxeetako haur eta gazte askok, kalean euskaraz hitz egiten dutela esan du Amonarrizek. «Gure garaian kontrakoa zen egoera; etxean euskaraz egiten genuen, eta kalean, gaztelaniaz», esan du. «Tolosan euskararen erabilera igo egin da, baina inguruko herri txikietan behera egin du. Aintzat hartu behar da, berez, eskualde oso euskaldunean bizi garela. Euskal Herriko eremu gehiagotan ere gertatzen ari da», gaineratu du.

LORPEN SOZIALA

Batez ere, 40 urteotako datuak alderatuta, haur eta gazteetan ikus daiteke aldaketa nabarmenena. «1985ean, adinekoak ziren euskaraz gehien egiten zutenak; gutxien, berriz, gazteek egiten zuten, nabarmen, gainera. Gaur egun, haurrak eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak. Haurren artean bikoiztu egin da euskararen erabilera, eta gaztearen artean hirukoiztu. Hori iraultza bat da, eta ez da gertatzen Europako beste hizkuntza gutxituetan». Kontuan izan behar da 1985eko haur eta gazteak, egungo helduak eta adinekoak direla.

Haurrek euskaraz egitea «borondate sozial baten ondorioa» dela nabarmendu du Amonarrizek, eta egoeraz jabetzeko, Galizian gertatutakoa ekarri du gogora: «2023an, historian lehen aldiz, erdara ohiko hizkuntzatzat zutenak gehiago ziren galiziera ohiko hizkuntzat zutenak baino. Azken 20 urteetan egin dituzten neurketa guztietan, adinekoak dira galizieraz gehien egiten dutenak, eta gutxien egiten dutenak, haurrak eta gazteak. Justu, gure egoeraren aurkakoa». Herrialde Katalanetan ere antzera daudela esan du: «Oraindik adinekoak dira katalanez gehien egiten dutenak».

Euskararen erabilera naturalaren aldeko apustua egin nahi du tolosarrak. Horretarako, hizkuntzari eutsi eta hizkuntza bera zaindu behar dugula esan du. «Kanpotik jende gehiago etorriko da. Horrek zerbitzu batzuk erdaldundu egingo ditu, eta beraz, konplizitate berriak beharko ditugu. Askok hitz egin behar dugu beraiekin, eta ilusioa piztu behar diegu. Ulermen maila batera iristeko aukerak eskaini behar dizkiegu. Horrez gain, lan esparru eta erronka berriak sortuko zaizkigu, eta horiei heldu beharko diegu. Bidegurutze batean gaudela, baina baldintza onak ditugu aurrerapausoak emateko; hala ere, arriskuak ere baditugu».



Kike Amonarriz soziolinguista, Europako hizkuntza gutxituen aldeko eragile sareak Bilbon egindako 2024ko Batzar Orokorrean. EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

ZUK HIK

Oria Sport Wear

www.oriasportwear.com

Apatta Baratzondo, D-28 Ibarra Telf:94330606

Egin irri euskarari!

BISITA GAITZAZU TOLOSA

etxebeste
HORTZ KLINIKAK

943 654 601 • Nafarroa Etorbidea 1 • TOLOSA • etxebestedental.com

Hizkuntza paisaiak erakusten du hizkuntzen hegemonia

Udalek ahalegina egiten dute eskualdeko hizkuntza paisaia euskalduntzeko; lanketa egiten dute Galtzaundirekin batera

Jon Miranda

Hainbat eremutan hizkuntza nola erabiltzen den adierazten du eskualde bateko hizkuntza paisaiak: merkataritzako iragarki eta errotuluetan, kale eta errepideetako seinaleetan, eraikin publikoetan eta bide publikoetan dauden idatzietan adierazten da. Eta, aldi berean, paisaia horrek islatzen du eskualde bateko sistema soziolinguistikoa; hizkuntzen arteko bizi-kidetza, prebalentzia edo hegemonia harremanak uzten ditu agerian.

Tolosaldeko udalerrietan seinaletika eta kale izendegia euskarazkoa da. Udalek, ahal den guztietan, idatzia euskaraz bakarrik jartzeko apustua egiten dutela aipatu du Amasa-Villabonako euskara teknikariak, Maite Arregik: «Zenbait kasutan baloratu egiten da kartelen batek elebitan joan behar ote duen, baina kasu horietan, euskaraz nabarmenago jarritzen da beti. Gure hizkuntza iriz-

pideetan horrela jasota dago eta, zehaztuta, lodiz eta bi puntuz handiagoa den leturan agertu behar dutela hizkiek euskaraz».

Kontratututako zerbitzuetan ere Amasa-Villabonako Udalak aplikatzen dizkie hizkuntza klausulak esleipendunei: «Gutxienez euskaraz, eta elebitan egitekotan, euskaraz nabarmenduago agertzeko eskatzen zaie, ez dadila izan elebitasun simetrikiko bat». Aurrea begira, entitate pribatuei ere hizkuntza irizpide horiek aplikatzeko aukera aztertzen ari dira orain. «Udalera baimen administratibo bat eskatzera datorrenak, beste hainbat baldintza bete behar dituen bezala, hizkuntzarekin lotutakoak bete ditzan zein pauso eman behar diren aztertuko dugu», esan du Arregik.

Eskualdeko beste hainbat udalek bezala, Amasa-Villabonakoak itzulpen eta karteldegiz zerbitzuak eskaintzen ditu doan. «Guk kartelak euskaratu, diseinatu, plastifikatu eta eskura ematen dizkiegu,

nagusiki, saltokietako arduradunei. Itzulpenari dagokionez, herriko zenbait tabernarik ia astero eskatzen dute euren menua euskaratzeko euskaraz zerbitzuan», aipatu du teknikariak.

LANKETA SALTOKIEKIN

Arregiren ustetan herriko saltoki txikiek udala erreferentziatzen dute: «Guregana jotzen dute eta gu saiutzen gara azpimarratzen norberaren establezimendurako gehitutako balio bat dela hizkuntzarena; euskaraz egitea kalitatearen seinale dela eta euskaraz bizi direnek estimatuko dietela keina». Amasa-Villabonan urtero behatzen dituzte herriko saltokiak eta horretarako Galtzaundi Euskara Taldeko teknikarien laguntza izaten dute.

2018tik egiten dituzte neurketak eta Galtzaundiko Amaia Doyaguek nabarmendu duenez, Amasa-Villabonako emaitzek erakusten dute urte hauetan saltoki txikietan eman den saltoa.

«Sei urtean, hogeit puntutan igo da euskararen presentzia saltoki kanpoko idatzi informatiboetan eta hamar puntutan, berriz, errotulu nagusietan».

Merkealdi garaian egiten dute lanketa berezia eta Galtzaundiko teknikariek merkatarien eskura jartzen dituzte hizkuntza zerbitzuek eskaintzen dituzten baliabideak. Aldi berean, diru laguntza lerroen inguruko informazioa eta karteldegiz edo itzulpen zerbitzuen berri ematen zaie. Eskara «handia» izaten dela aipatu du Doyaguek eta, urtero, 500 kartel baino gehiago egiten dituztela.

Merkealdietako bisita berezietan batera, aldizkako kanpainak ere egiten dituzte, adibidez, inauterien atarian, ostalaritza saltokiekin. Gainera, kanpaina berezituak ere bultzatu ditu Galtzaundik azkenaldian: fruta denda, harategi eta arrandegietan. «Berezituak izanagatik, jarraipena ematen diegu kanpaina hauei eta denda hauentzako etiketak

sortzen jarraitzen dugu. Ehunka egiten ditugu urtean».

Erronkarik handiena maiz aldatzen diren kartelekin dutela aipatu du Doyaguek. Dena den, euskara taldeko kideek uste dute azken urteetan egindako lanek eman dituela emaitzak eta bilakaera «positiboa» izan dela. Norabide horretan eskualdeko hizkuntza paisaia neurtzen ari dira orain: 600 saltokitik gora behatuko dituzte Ibarra, Villabonan eta Tolosan. Azkenaldian, Tolosaldea LHIiko merkataritza arloko ikasleek lagundu diete Galtzaundikoei saltokien behaketan.

Arregik eta Doyaguek azpimarratu dute udalek lanketa hau establezimendu txikiekin egiten dutela, euren eragin eremutik kanpo geratzen direla saltoki handiak. «Hala ere, herritarrek ikusten badute hizkuntza eskubideren bat urratzen zaiela saltoki horietan, Behatokiaren euskararen telefonoan sala dezakete», esan du Galtzaundiko kideak.



Villabonako Kale Nagusiaren sarreran dauden seinaleak, elebitan, baina euskaraz nabarmenduta. J. M.



Hamaika ekitaldi, euskara gogoan

Eskualdeko herri gehienetan Euskararen Egunari keinua egingo diote, eta ekitaldiak antolatu dituzte

Euskararen Nazioarteko Eguna da gaurkoa, Eusko Ikaskuntzak 1949an «euskararen balio unitbertsala aldarrikatzeko» sortua. Aldarrikapenerako eguna da, eta baita ospatzeko eta euskararekiko konpromisoa adierazteko ere. Helburu horiekin hainbat ekitaldi antolatu ohi dira.

Anoetan larunbatean hasi ziren Euskararen eguna ospatzen herriko gaztetxoak. Ikastolako euskara elkarteak antolatuta, jolasak izan zituzten plazan. Asteasun, berriz, Muskerarren Eguna

izan zuten herenegun. Muskerarren bidearekin Bernardo Atxaga izan zen azalpenak ematen. Ondoren, iturriko apustua jokatu zuten, eta musker erraldoi bat ere osatu zuten liburuekin. Arratsaldean, berriz, bi solasaldi izan zituzten. Orendainen, bestalde, bertso bazkaria egin zuten herenegun Eltxo elkarte-an, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin, eta Amaia Agirre gai jartzailearekin.

Gaur izango dute ekitaldiek jarraipena hainbat herritan.



Goian, Asteasuko Muskerraren Eguna. Ezkerrean, Orendaingo bertso bazkaria eta eskuinean Anoetan gazteak. L.C./J.M.

EKITALDIAK

Aduna. 17:30. Argazki Rally lehiaketaren erakusketa eta sari banaketa, kultur aretoan. Ondoren. Txulobi elkarte-an, *Herriko kuadrillak* argazki berriaren aurkezpena 18:30. *Bizkarsoro* filmaren emanaldia kultur aretoan.

Alegia. Txokolate beroa hartuko dute plazan, 17:30ean hasita. Alegiako Gaztetxearen 37. urteurrenaren barruan, 18:30ean, gaztaina jatea egingo dute. Tartean, herriko bertsolarien eskutik euskarari jarritako bertsoak izango dira.

Alkiza. *Bizkarsoro* filma izango da ikusgai, Fagus Alkizan, 18:30etik aurrera.

Altzo. Euskararen Eguneko adierazpen irakurketa, Hitzzen bila jolasa eta kanta dezagun batera, 18:00etatik aurrera.

Amezketeta. Zumadiko eskolako ikasleen emanaldiak, 15:00etan, kultur etxean: LH 5-6. *Gaztetxean edo gazta etxean* antzezlanak. HH. *Euskararen eguna eguneroko eta Kokororikoko abestiak*. LH 4. Baldarrak bertso antzerkia. LH 1-2. *Eguzkilorea*

abestia. LH 3. *Memoriaren ehiza* ipuin musikatua.

Asteasu. Haur hezkuntzan. Party aparta! Aurpegi margotzea, mugimendu zirkuitua eta tailerrak. Lehen hezkuntzan. Nahia Zudairerekin solasean. 15:00. Joxe Arregi plazan eguraldi onarekin, euria egingo balu Otañoko frontoian. Herri kirol eta haur jolasak, abestiak, lehiaketa, gaztaina erreak...

Baliarrain. *Bizkarsoro* pelikula, balioanitzeko gelan, 18:30ean.

Berrobi. Hitzzen bila jolasa eta gaz-

taina jatea, euskara taldearen eskutik, 17:30ean.

Bidania-Goiatz. Goizean. Irulegiko eskua patioan kokatu, eta Irulegiko eskuarekin txapak egingo dituzte Txinkorta eskolan. 11:00. Kantujira. Eguneko zentroak, plazara eta Goiatzera. Euria egingo balu, eskolako patioan. Arratsaldean. Euskararen puzzlea egin, Irulegiren eskua aurkeztu eta gaztaina jatea.

Ibarra. 16:45. Kantu jira, Danon Txokoatik hasita. 18:00. Hitzzen bila jolasa, plazako aterpean.

Tolosa. Laskorain Ikastolaren Euskararen Eguna. 10:30. Uztaritzeko ikasleei harrera egingo die udalak, Plaza Zaharrean. Ondoren. Beotibar frontoian herri kirolak. 11:00-11:45. Kalejira aldarrikatzailea. Usabalgo eraikinetik Alondegira. Arratsaldean. Usabalgo eraikinean Laskorrika ekimena. 17:00. Sakramentinoetan bingo musikatua. 19:00. *Euskara munduan* dokumentalaren 10 urte. Iñigo Asensio egilearekin, Antxon Bandres Bidaierien Txokoan.



EUSKARAREN EGUNA

ABENDUAK 3 IBARRA

16:45 • KANTU JIRA

Danon txokoatik hasita

18:00 • HITZEN BILA JOLASA

Plazako aterpean

«Euskaltzaleok ekin egin behar diogu, baikortasunetik baina ekin»

INTZA GURRUTXAGA EHE-KO KIDEA

Larunbatean, 18:00etan, Euskal Herrian Euskarazek deituta, Durangoko Landako gunetik manifestazio nazionala abiatuko da 'Euskaraz bizitzeko, euskararen errepublika' lelopean; Intza Gurrutxaga elkarteko kidea da.

Jon Miranda

Larunbateko mobilizazioa aurkezteko saioetan euskaltzaleen gogoia sumatzen ari da Intza Gurrutxaga (Getaria, 1996). EHEko kideak Tolosaldeko euskaltzaleak deitu ditu manifestaziora. Galtzaundik autobusa antolatu du Durangora joateko.

EHEren ustez ez da ikuspegi kontua, sendo frogatua baizik euskara larrialdi egoeran dagoela. Zergatik?

Geroz eta batasun handiagoa dago euskalgintzan larrialdi kontzeptuaren inguruan eta EHEn bat gatoz diagnosi horrekin. Adierazleetako bat da geroz eta barneratuagoa dugula banaketa administratiboa eta horrek zuzenean eragiten duela nazio pultsuan. Bestalde, datu soziolinguistikoak irakurtzeko modua ere aldatu du Iñaki Iurrebasoren tesiak; berak dio hizkuntza gaitasunaren jaitsierak apaldu egin duela euskararen erabilera. Alde horretatik estankatuta gaudela. Gainera, joera orokorrak ere ez ditugu, preseski, gure alde. Mundu globalizatuaren indar horiek geroz eta azkarrago iristen zaizkigu. Homogeneizazioak hizkuntza gutxitu asko desagerrarazten ditu eta euskara ere arriskuan dago.

Larrialdi egoeran dago euskara, eta erasoaldi betean ere bai?

Bai. Eta erasoaldia ez da bakarrik

judiziala, oldarraldi politikoa ere bada. Hedabide batzuetatik diskurtso jakin batzuk zabaltzen dituzte euskararen normalizazioa oztotatzeko. Euskal Herrian eta euskararekin gertatzen dena ez dugu modu isolatuan ulertzen. Munduan ultraeskuina gora ari da etengabe eta horrek atzerapausoak dakartza eskubide sozialetara, baita hizkuntza eskubideetara ere. Altoa eman behar zaio faxismoari.

Orain arte euskarak egin dituen aurrerapenak arriskuan egon daitezke?

Bai. Gure hizkuntza desagertze- ar egotetik normalizazio bidean jarri da, indar erakustaldi ikaragarri bat egin ondoren. Azken hamarkadan geldialdi moduko bat bizi dugu eta abagune hau baliatu nahi dute batzuek eraso egiteko. Asko kostata eman ditugun pausoak, gu konturatzerako, atzerapauso bihur daitezke.

Nola eta norekin osatu nahi duzue faxismoaren aurkako eta askatasunaren aldeko fronte euskaltzalea?

Euskaldunok zapaltzen dituen sistema horrek berak zapaltzen dituen gizarteko beste sektoreekin: emakumeekin, LGTBI kolektibokoekin, etorkinekin, langile klasekoekin... Euskal Herri askeago eta justuago bat irudikatzen duten bestelako borrokekin indarrak bateratzea dagokigu. Elkarrekin eser gaitezen, elkar ulertu dezagun eta elkar errespe-

tatz aliantzak sor ditzagun. Ea posible dugun norabide berean arraun eginez, elkarrekin euskararen errepublika eraikitzea.

Eguneroko borroka ere bada euskararena. Zein jarrera hartu behar lukete euskaltzaleek?

Euskaraz bizitzea hautu politikoa da, eta gaur egungo gizartean erronka bat. Horregatik garbi eduki behar dugu gure hizkuntza eskubideak zapaltzen dituzten bi estatu ditugula aldamenean eta horiei aurre egin behar diegula. Kontzientzia hori piztea da EHEren eginbeharretako bat. Gararazi Arrulak Korrika bukarran esan zuen bezala, ekosistema osoa behar du euskarak, behar ditu arnasguneak eta lehentasunez euskara hutsezkoak izango diren eremuak. Dena du beharrezkoa euskarak. Tokian tokiko borrokak piztea izan daiteke bideetako bat.

Ez gara hutsetik abiatzen, ordea. Euskararen normalizazioak badu urteetako esperientzia. Zer ikasi dezakegu bide horretatik?

Gauza asko. Esate baterako, herria aktibatze gure aurrekoek izan zuten gaitasunean jarri dezakegu arreta. Ikastolen sorreran, adibidez, irakasle eta gurasoak inplikatu ziren, berdin alfabetatze eta euskalduntze mugimenduan, edota euskarazko hedabidegintzan. Argi zuten Euskal Herri euskalduna eraiki

behar zela eta prest agertu ziren lan egiteko. Inspiragarria izan daiteke guretzat, zergatik ez. Ezin dugu konformatu jasotako erasoei erantzute hutsarekin eta ez da nahikoa adostasun zabalak eraikitzea joera horiei aurre egiteko. Gure helburuetan berretsi eta horietara iristeko indar handiagoa egin behar dugu orain.

Zuk nola irudikatzen duzu euskararen etorkizuna hementik 10 urtera?

Euskal Herri independente eta euskaldun batean bizitzea gustatuko litzaidake. Ez dut esan nahi erraza izango denik edo berez etorriko denik, borrokatu egin beharko dugu. Gure hizkuntza eskubideen kontra datoz, beraz, elkarrekin antolatu beharko dugu horren aurka egiteko. Euskaltzaleok ekin egin behar diogu, baikortasunetik baino ekin; eta, beti ere, baikortasunak ezin gaitu inaktibo egotera eramanean. Aktibatu egin behar dugu euskaltzaleok, fronte zabala osatu eta lan egin. EHEtik pedagogia euskaltzalea eta independentista egiten jarraituko dugu.

Estatu independente batek, bere horretan, berrabiarazteko al du euskararen normalizazioa?

Badabilta ahots batzuk esaten euskara despolitizatu egin behar dela, baina guretzako euskararena auzi politiko bat da eta politikoki erantzun behar zaio. Euskal Herri euskalduna lortuko badu-

gu, beharrezkoa izango da euskara ardatz izango duen independentzia lortzea, hau da, euskararen errepublika eraikitzea. Guk ez dugu bestelako Euskal Herririk irudikatzen. Gure hizkuntzak bizi duen egoera ez da ausazkoa, etengabe gure hizkuntza eskubideak zapaltzen dituzten bi estatuak eragindakoa baizik. Euskal Herri euskalduna berrabiarazteko, behar ditugu estatu batek eskaini ditzakeen instrumentu guztiak; tresna horiekin egin beharko diegu aurre gure aurka datozen joera globalizatzaile horiei, erreminta horiek gabe ezinezkoa egingo baitzaigu. **Zer espero duzue larunbatean deitu duzuen manifestazio nazionaletik?**

Jende asko batzea espero dugu. Badakigu azokara joateko autobusak ari direla antolatzen herrietan eta bueltarako ordua atzeratu dute askok, manifestazioan parte hartzeko. Tolosaldean, Galtzaundik antolatu du eta, beraz, autobusa hartzeko asmoa dutenak animatu nahi ditugu manifestaziora. Denon artean eraikiko dugu burujabetzea, gurekin batera bide hori egin nahi duten mugimendu eta borroka guzti horiekin. Mundu ilun honetan itxaropen argi eta inspirazio iturri izan daiteke euskararen errepublika. Herri euskaldun eta burujabe bat nahi duten guztiak gonbidatzen ditugu, hortaz, Durangora etortzera.



ATARIA

Kirolean ere, euskaraz

Kirol klubetan euskararen erabilera da nagusi, bai barrura begira zein kanpora; zenbait klubetan, gainera, konpromiso berezia erakusten dute euskararen alde

Imanol Garcia Landa

Galtzaundi Euskara Taldeak Ibarrrako, Tolosako eta Villabonako kirol entitateen hizkuntza erabileraren azterketa egin zuen 2022an, eta hainbat ondorio atera zituen bertatik. Horietako bat, kirol taldeen barneko ahozko funtzionamendua euskaraz dela, eta ez dagoela gaztelaniaz bakarrik funtzionatzen duen talderik. Horrez gain, kanpora begira egiten duten guztian euskara txertatuta dutela eta are gehiago, nagusitu egiten dela. Epailetan arrakala dagoela jaso zuen azterketak eta kirol federazioek pauso bat emateko beharra dutela.

Kirolariekin duten harremanaren inguruan, entrenamenduetan euskara dela hizkuntza nagusia jaso zuen azterketak, eta emakumezkoen entrenamendutaldeak direla euskaldunenak. Bestalde, adinean geroz eta gorago, orduan eta presentzia gutxiago du euskarak entrenamenduetan. Horrez gain, haur eta gazteei bidaltzen zaizkien jakinarazpenetan gaztelera ere badagoela jaso zen. Kirolei begiratuz gero, eskubaloian eta areto futboleantzen da euskara gutxien, eta atletismoan eta pilotan gehien.

Tolosalde Igeriketa Kirol Taldeak parte hartu zuen Galtzaundi Euskara Taldearen azterketan. «Gure taldean euskaraz komunikatzen gara, eta gurekin hitz egitean euskaraz egiten dute beti igerilariek», esan du Beñat Bidaola taldeko entrenatzaileak. «Badaude hiru bat igerilari euskaraz ez direnak moldatzen, baina taldeari zuzentzen garenean euskaraz aritzen gara, eta gero horietako norbaitek behar badu, erdaraz azaltzen diogu». Talde txoren batean gaztelaniaz mintzatzen entzuten dutenean, euskaraz aritzeko esaten diete. Bestalde, Bai Euskarari Ziurtagiria du igeriketa klubak, eta urtero galdetegi bat betetzen dute euskararen erabileraren inguruan.

Gurasoeekin izaten duten harremanean azken urteotan alda-



Intxurre infantil taldea Goierri Gorriren aurka, aurreko denboraldian. P. RENOBALDES

keta nabaritu dela azaldu du Bidaolak: «Orain 15-20 urte gaztelaniaz gehiago hitz egiten zen, eta gaur egungo gurasoeekin ia dena euskaraz egiten dugu».

Igeriketa federazioekin duten harremanetan euskara gailentzen dela zehaztu du. «Gipuzkoako federazioarekin euskaraz egiten dugu. Aurreko Euskadiko federazioko presidentek gaztelaniaz egiten zuen, eta gaur egungo idazkariarekin euskaraz aritzen gara», esan du Bidaolak. Gipuzkoako federazioaren kirol arduradunarekin ere euskaraz hitz egiten dute. «Modu naturalean euskaraz egiten dugu, eta norbaitengana gaztelaniaz zuzentzen bagara, pertsona horrek euskaraz ez dakielako izaten da».

IDATZIAK, EUSKARAZ BAKARRIK
Euskararen erabilerari garrantzia ematen dion beste klub bat Alegiako Intxurre futbol taldea da. Gipuzkoako Futbol Federazioarekin erabat euskaraz aritzen direla azaldu du Patxi Renobales klubeko arduradun orokorrak: «Idatzi guztiak euskaraz bidaltzen ditugu, eta euskaraz bakarrik, ez ditugu bi hizkuntzetan bidaltzen. Are gehiago, orain pare bat edo hiru aste epaile bateg aktan gaztelaniaz idatzi zituen hainbat konturi, gero guk euskara hutsean erantzun genien». Euskaraz aritzearena «oso barneratuta» dutela gaineratu

du, eta herrian zehar zabaltzen dituzten idatziak eta kartelak ere euskara hutsean izaten direla.

Entrenatzaileek kirolariei euskaraz egiten dietela zehaztu du. «Entrenatzaile guztiak herrikoak dira eta denek egiten dute euskaraz. Zelaia barruan euskaraz egiten dute taldekoek; gero agian kuadrillan-eta tarteka egingo dute gaztelaniaz, baina gurean euskaraz aritzen dira». Gipuzkoan futbolaren esparruan euskararen presentzia nabarmena dela azaldu du Renobalesek. «Donostialdean entzuten da gaztelaniaz zerbait gehiago, baina orokorrean euskara entzuten da. Gipuzkoako federazioak antolatzen dituen asanbladetan euskaraz barra-barra egiten da, eta jendea ez da kexatzen».

Aldaketa handiena epaileen artean ikusi du azkenaldian. «Epaileen eremua lehen gaztelania itxian izaten zen, hasi lehen-dakaritik eta batzordean zeuden guztietara. Oso zaila zen epaile batek euskaraz egitea», azaldu du Renobalesek. «Federaziotik egin den lanketarekin, hori aldatzen joan da. Idatziak gutxienez bi hizkuntzetan bidaltzen ditu. Gure aldetik beste hainbat klubi esan diegu idatziak euskaraz bakarrik bidaltzen ditugula». Bide batez, Gipuzkoako beste hainbat klubetan ere ikusten du euskararen erabilerarekiko konpromisoa areagotzen doala.



EUSKARAREN ALDE ZERBAIT EGITEKO PREST?

HARPIDETU ETA
JASO
ataria ETXEAN!



GAUR

Euskararen egunean
atarikide egiten diren
lehen 10entzat
Casa Eceizako
Gabonetako
gozoen
sorta opari!



Gozatu aukeraz!



943 65 56 95

PAPERKOA

85

~~95~~

DIGITALA

60

~~70~~

Oihana Iguaranek jantzi du txapela azken finalaurrekoan

Asteburuan Arrasaten jokatu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa, eta erabakita geratu da finala; Iguaran ez ezik, Andoni Rekondo ere pasa da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Joan den asteburuan Arrasaten (Gipuzkoa) jokatu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa eta Oihana Iguaran gailendu da saioan. Amasa-Villabonako bertsolaria-ekin batera, Andoni Rekondo ere sailkatu da txapelketako finalera, bildu dituen puntu kopurugatik.

Saioan hurrenez hurren sailkatu dira Maider Arregi Markuleta, Agin Laburu Rezola, Eñaut Martikorena Lizaso eta Iñigo Mantzizidor Larrañaga *Mantxi*.

AZKENA, DONOSTIAN

Illunben (Donostia) jokatu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala eta, azken saio horrekin, erabakita geratu da haren osaera. Datorren asteko larunbatean, abenduaren 14an, txapela lortzeko lehian ariko dira



Azken finalaurreko bertsolariak eta gai jartzaila. BERTSOZALE ELKARTEA

Alaia Martin, Andoni Rekondo, Ane Labaka, Aner Peritz *Euzkitze*, Beñat Gaztelumendi, Eneritz Artetxe, Nerea Elustondo eta Oihana Iguaran.

Alaia Martin, Andoni Rekondo, Ane Labaka, Aner Peritz *Euzkitze*, Beñat Gaztelumendi, Eneritz Artetxe, Nerea Elustondo eta Oihana Iguaran.

Osatu da zortzikotea

Analisia Izar Zelarain

Harituz Bertsozale Elkartea

Azken finalaurrekoetan ohikoa den tentsioa nabaria izan da Uarkape pilotaleku-ko harmailetan. Urduritasuna airean nabaria bazen ere, ez da amasarraren sormen lana oztopatzeko lain izan. Zortziko txikian estuago ibili dela ziru-ru dien arren, lan txukuna egin du gainontzeko ariketetan eta saioa punturik gorenean amaitu du bakarkakoan lan ederra egin ez.

Saio honetan puntuazioz Illunberako txartela lortu duen bertsolaria Andoni Rekondo izan da. Ariketa guztietan erregulartasunez lan bikaina egin duen arren, puntukakoetan aritu da finen, bertsokideari erantzunez eta umorea erabiliz azti ibili baita hernaniarra.

Bestetik, Maider Arregik txalotzeko moduko lana burutu badu ere, pena handiz finalaren at-

rian geratu da puntu baten faltan. Bakarkakoan sexu bidezko gaixotasunen inguruan lan ikaragarria eginik eman dio bukaera bere aurtengo txapelketaren ibilbideari. Haatik, txapelketa osoan zehar oñatiarrak publiko-arengandik jasotako gertutasun eta txalo zaparrada azpimarragarriak izan dira. Laugarren postuan, Agin Laburuk agurrean alabari onartu dio «attak latza hartu din gaur makillakua». Puntuaren joskeran abil aritu den arren, ez du bere mailarik onena erakutsi.

Eñaut Martikorenak ere puntu itzel ugari eskaini dizkigu saioan zehar. Bere ohiko azkartasunaz jendearen harridura pizteko gaitasuna erakutsi du eta puntu eta hitz joko bikainak entzun ditzakegu bere bertsoen artean. Esaterako, bakarkakoan «lokatzen, jokatzeko, kolokatzen, oztopatzen, Donbassen» bezalako oin joko gozagarriak oparitu dizkigu Martikorenak.

Eta azken postua Iñigo Mantzizidor *Mantxi*-k eskuratu du.

Puntuazio gutxien eskuratu duen bertsolaria izan den arren, umorea baliatuz publikoarengana gerturatzeko gaitasuna erakutsi du, txapelketa osoan zehar bezala.

Orokorrean, aurreko finalaurrekoekin alderatuz, puntuazio baxuagoko saioa izan da eta bertsolarien artean ere ez da alde handirik egon. Parekotasun honek, amaieraraino emozioa mantentzea eragin du.

Hortaz, honako zortzi bertsolariez gozatzeko aukera izango dugu abenduaren 14an Illunben ospatuko den finalean: Saio bakoitzeko txapeldunak; Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin eta Oihana Iguaran. Puntuazioz sailkatuak, berriz; Ane Labaka, Nerea Elustondo, Eneritz Artetxe, Andoni Rekondo eta Aner Peritz.

Argi dago finala ez dela nolanahikoa izango. Udazkenean zortzi bertsolariek egin duten erakustaldiarekin, ez baita zailantza izpirik aulkia ongi merezita dutela Illunbeko oholtzan.

Espedientea bertan negoziatzeko exijitu dute

Siemens Gamesa enpresako langileek elkarretaratzea egin dute aldi baterako espedientea bertan negoziatzeko exijitzeko

Erredakzioa Asteasu

LAB sindikatuak esan duenez, Siemens Gamesa Asteasuko langileek hilabeteak igaro dituzte, ekoizten dituzten turbinen inguruko arazo teknikoak tarteko, «etorkizun hurbilean zuzendaritzak beren lan baldintza eta lanpostuen aurkako neurriak hartuko zituela entzuten». Langileek «behin eta berriz» gardentasuna eskatu dutela gaineratu du sindikatuak, baina ez dutela erantzun argirik jaso.

Esan dute udako oporren aurretik urte bukaerarako Aldi Baterako Erregulazio Espediente (ABEE) baten beharraz mintzatu

zela zuzendaritza lehenengoz eta langileek azken asteak eman dituztela neurria martxan jartzeko asmoaren berri formalki jaso zain.

ERABAKIARI UKO EGIN DIOTE

Egoeraren aurrean, langileek elkarretaratzea egin dute lantegiaren atarian eta esan dute ez dutela enpresaren erabakia onartzen. «Erabakia atzera botatzeko exijitzen diote zuzendaritzari eta hartu asmo dituen neurriak bertako mahai batean negoziatzera eser dadila, langileen lan baldintzetan ahalik eta eragin txikiena izango duen ABEEaz hitz egiteko borondatez».



LEHEN JENDAURREKOA

Zizurkilgo San Millan elizan eta 150 gonbidaturen aurrean aurrez estreinatu dute Ombuaren itzala, Pello Mari Otaño herriarraren bizitzan oinarritutako filma. JON MIRANDA



SORMENA LANGAI

Bedaion denetariko jarduerak izan dituzte kultur asteburuaren barruan, beste hainbaten artean, haurrei bideratutako Animaltzentailerra. IÑIGO TERRADILLOS

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

12. jardunaldia	
Picassent	5
Lauburu Ibarra	6

Sailkapena

1. Vulcanizados Ruiz	30p
2. Otxartabe	28p
3. Picassent	26p
4. Lauburu Ibarra	25p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (4) - Vulca. Ruiz (1)

HIRUGARREN MAILA

10. jardunaldia	
Eskoriatza	3
Tolosala	2
Lauburu Ibarra	0
Gernikako Lagunak Erabil	2

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (6) - Jarrilleros Peñ. Den. (5)
Usansolo (10) - Lauburu Ibarra (15)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia	
Ereintza	36
Tolosa CF Eskubaloia	29

Sailkapena

1. Anaitasuna	21p
2. Romo Broker Kirol	18p
9. Tolosa CF Eskubaloia	11p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia (9)
Egia Teila Fabrika (14)

LURRALDEKO 1. MAILA

8. jardunaldia
Tolosa CF Eskubaloia (atsedena)

Sailkapena

1. Txingudi Zubieder	12p
2. Saieko Mon Paperdenda	10p
4. Tolosa CF Eskubaloia	2p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia (atsedena)

Futbola

3. FEDERAZIO MAILA

13. jardunaldia	
Tolosa CF	1
Berriozar	0

Sailkapena

1. Bizkerre	31p
2. Athletic Club C	29p
3. Burgos	27p
9. Tolosa CF	18p

Hurrengo jardunaldia

Oyonesa (12) - Tolosa CF (9)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

12. jardunaldia	
Elgoibar - Tolosa CF	0-1

Sailkapena

1. Zarautz	26p
2. Bergara	24p
12. Tolosa CF	14p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (12) - Real Union B (4)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

11. jardunaldia	
Tolosa CF B - Zumaiako	0-0

Hurrengo jardunaldia

Ondar. Amai. (16) - Tolosa CF B (12)

GIZONEZKOEN GORENGO MAILA

11. jardunaldia	
Usurbil - Billabona	4-0
Danena - Euskalduna	1-3

EMAKUMEZKOEN GORENGO

MAILA

10. jardunaldia	
Goierri Gorri B - Aiztondo	1-1

GIZONEZKOEN 1. ERREGIONALA

10. jardunaldia	
Euskalduna B - Tolosa CF B	3-0
Urola B - Intxurre	2-0

SASKIBALOIA

HIRUGARREN FEB MAILA

8. jardunaldia	
Blendio	97
Iruki TAKE	88

Sailkapena

1. Castillo de Gorraiz	7-1
2. LBC Cocinas.com	6-2
3. Iruki TAKE	5-3

Hurrengo jardunaldia

Iruki TAKE (3)
Baskonia (10)

EUSKAL LIGA 2. MAILA

10. jardunaldia	
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	43
Valle de Egues	56

Sailkapena

1. Getxo	9-1
9. Eguzkitza Sagardot. TAKE	1-9

Hurrengo jardunaldia

Navasket (47)
Eguzkitza Sagardotegia TAKE (9)

GIPUZKOAKO 1. MAILA

9. jardunaldia	
Casa d. la Rioja - Take Orbela	55-45
Donosti Dolp. - Elorri-Aldapa	71-50



XXXII. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketaren sari banaketa. I. TERRADILLOS

Giro bikaina izan da Berrobiko frontenis txapelketako finaletan

Frontenis txapelketak giro ederra jarri zuen larunbat arratsaldean Berrobin, eta herritar ugari gerturatu ziren pilotalekura bertan jokaturako finalak jarraitzera

Iñigo Terradillos Gaztañaga Berrobi

XXXII. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketaren finalak hartu zituen larunbatean Berrobiko Urreburu pilotalekuak. Lau kategoriatan jokatu ziren finalak, eta aurretik gaztetxoek finalak jokatu zituzten.

Haurren mailan, LH1-LH4 kategorian, banaka Orkatx Ugarte mendia geratu zen lehen postuan; bigarren Ugaitz Irazusta izan zen, eta hirugarren Danel Alberdi. LH5-DBH2 kategorian, banaka, Ekhi Altunak irabazi zuen, eta bigarren Amets Altuna izan zen. LH5-DBH2 kategorian binaka Aritz Gorostidi-Alain Urrutia izan ziren garaileak, Aratz Barandarin-Oier Zabaleta bigarren geratu ziren eta Amets Altuna-Ekhi Altuna hirugarren.

Helduen mailan, gizonezkoetan binaka, Jon Ander Artaza-Yeray Otaegik irabazi dute Iosu Iruretagoiena-Ion Jauregiren aurka, 30-17ko emaitzarekin. Binaka mistoan, Mireia Barriola eta Julen Garaiburu bikoak 30-22 irabazi du, Nagore Lizardi eta Niko Artola bikoaren aurka. Emakumezkoetan binaka, Oihane Vergara eta Elena Artieda bi-



Emakumezkoen binakako eta gizonezkoen banakako finalen irudiak. I.T.

koak 30-19 irabazi du Irati Re-kondo eta Mireia Barriolaren aurka. Azkenik, gizonezkoetan binaka, Odei Arregi izan da ga-

raile Mikel Etxeberriari 30-18 irabazita. Frontenis txapelketa Berrobiko Ibin Kirol Klubak antolatu du.

Itxaso Erasunek ezin izan du finalera igaro

Erredakzioa

Giro ederrean eta Basauriko pilotalekuko harmailak goraino beteta zirela jokatu ziren igandean aurtengo Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxa txapelketako finalerdiak. Iaz Matienan bezala, Amaia Aldaik eta Goiuri Zabaletak lortu zituzten abenduaren 15ean Sestaon jokaturiko diren elite mailako finalerako txartelak, kasu bietan, 22-12ko emaitzaz Behar Zana elkarterko Miriam Arrillaga aginagarra eta Itxaso Erasun zizurkildarra gaiditu ostean.

zuen, batez ere bere eskuinaren indarrari etekina ateratzea lortu zuen bitartean. Finalera sartzetik izan ez duen arren, Erasunek sekulako denboraldia osatu du, bere jokoan aurrera pauso handia eman eta zirkuituko izarren artean leku bat egitea lortuta, besteren artean Olatz Arrizabala- lagarekin Binakako txapela eta igandean arerio izan zuen Zabalarekin sanmateotako txapelak jantziz.

Lehen puntua Jaka, Altuna III.a eta Iztuetarentzat

Erredakzioa

Martxan jarri da asteburuan Binakako Pilota Txapelketa eta lehen puntuak banatu dira. Martxel Iztueta tolosarrak bere lehen partida jokatu du lehen mailako txapelketan eta lehen garai-pena lortu du, bere aurrelari Lasorekin 22-9 irabaziz Larrazabal eta Mariezkurrena II.ari. Iñaki Artolaren ordezkatu zuen Larrazabalek, alegiarra lesionatuta dagoelako. Ikusgai da bigarren jardunaldirako prest egongo den. Baiko Pilota enpresako pilotarien beste partidaren Erik Jaka lizartarrak eta Imazek 22-16 irabazi zioten Jon Ander Peña tolosarrari eta Albisuri.

raipenarekin hasi du txapelketa. Arangurenekin batera 22-13 irabaziz P. Etxeberrriak eta Martijak osatutako bikoteari. Beste partidano, Ezkurdia-Rezusta bikoak 22-12 irabazi dio Elordi-Zabaleta bikoari.

GABIRONDOK IRABAZI, UGARTEMENDIAK GALDU

Binakako Serie B Txapelketan garaipen bat eta porrot bat izan dira eskualdeko pilotarientzat. Arkaitz Gabirondo gazteluarrak Dario aurrelariarekin batera 22-17 irabazi dio Zabala-Eskuza bi-koari. Bestalde, Gorka Ugarte-
mendia alkizarrak Alberdi II. are-
kin batera (Agirreri ordezkatzuz) 22-15 galdu zuen Bakaikoa (La-
rrazabal ordezkatzuz) eta Salave-
rri II.aren aurka.

John Cabang atletari omenaldia egin dio Irurako herriak

Gipuzkoako Atletismo Federazioak, Irurako hainbat eragilek eta Irurako Udalak egin diote omenaldia atleta gazteari, eta esker ona adierazi du kirolari irurarrak



Gorka Murua alkatea, Idoia Garaialde zinegotzia eta John Cabang, omenaldiaren une batean. J. MIRANDA

Jon Miranda Irura

John Cabang atleta irurarrari omenaldia egin zioten larunbatean herrian bere kirol ibilbidean erakusten ari den mailagatik eta Iruraren izena munduan zabaltzen laguntzeagatik. Udaletxeko ganbaran egin zioten harriera instituzionala eta Irurako Udalak, Gipuzkoako Atletismo Federazioak eta Cabangen lagunak hartu zuten parte. Herriko eragileen esker ona jaso zuen, ondoren, plazan.

Atleta gaztea «pozik» agertu zen orain arte lortutakoagatik, eta aitortu zuen iritsi den tokira iritsi bada ingurukoen bultzadagatik izan dela. Udalaren izene-

an hitz egin zuen Gorka Murua alkateak eta kirolari gaztea zoriondu zuen orain arteko lorpenengatik. Udalak hariz egindako koadro bat eman zion oparitan.

Ramon Goikoetxea Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidentek arreta jarri zuen kirolari olinpiko izatera iristeko egin behar den lan guztian eta Cabangiesker ona adierazi zion «zailtasun guztiei aurre egiten jakiteagatik». Oroigarri gisa urrezko ezkur bat ere eman zion oparitan.

Cabangen ibilbidea laburbiltzen duen ikus-entzunezko bat eskaini zuten ekitaldi instituzionala amaitzeko; lagunek prestatutako bideoa izan zen eta haiek hartu zuten hitza segidan, pres-

tatu zituzten bertsoak kantatzeko. Plazan jarraitu zuen ekitaldiak eta agurra dantzatu zioten kirolari gazteari; segidan, Irura Bizi eta Irurako Ikastolako enpariak jaso zituen. Goizeko ekitaldia, bere argazkiak sinatzen amaitu zuen Cabangek.

Omenduarien familiak esker mezua zabaldu du ekitaldiaren-gatik: «Esker ona adierazi nahi diegu eragile guztiei, Irurako Udalar, Irurako Ikastolari eta Gipuzkoako Atletismo Federazioari, eta baita Johnen lagunei ere zein omenaldian parte hartu zuten guztiei. Guretzako egun eder eta hunkigarria izan zen, eta mila esker guztioi egun hori gu-rekin elkarbanatzeagatik».



zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



Inveready Gipuzkoa
Basket
VS
Amics Castelló
partida ikusteko

Abenduak 6, ostirala
20:30
Donostiako
Amenabar Arenan

Atarikideentzat **sorta** dugu

Pagadiren
Bisita
liburua sinatuta
+ atariaren
tote zorroa
+ atariaren katilua



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



ASTEARTEA, 2024KO ABENDUAK 3
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbelsasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil
galtzaundi Txolarrre berria BERTAKO HEDABIDEAK Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEARTEA 03

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Mugi Tolosako 2025eko egutegien banaketa, Zerkausan, 10:00etan.
Tolosaldea. Euskararen Egunarekin bat eginez, eskualdeko herri ugariatan ekitaldiak izango dira. Horien inguruko xehetasunak gehigarri berezian.

Erakusketak

Tolosa. Erakusketa solidarioa, 3 tabernan, Naiara Delgado Perezen eskutik: *Nahia eta bere nahia*. Akwarelak. Bertatik ateratzen ari den dirua Nahia Patino Arancon haur andoaindarraren terapiatzat bideratuko da. 11 urte ditu Nahiak eta artrogriposis gaixotasuna diagnostikatu diote.
Tolosa. *L'Éstaquirot Teatreren 50 urte* Topic zentroan.
Orexa. *Adierazteko moduak... irudiak eta mezuak* erakusketa, Ostatuko ganbaran

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia: Iker Ibarluzea eguraldi adituaren eskutik.
10:00. Patxadaz. Elkarriketak.
12:30. Pasahitza: albisteak.
18:00. Letren errepublika.

28 KANALA

10:00. Kirolak Tolosaldean.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Eugeniren txokoa.
19:00. Azokatik mahaira.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Bota Erantzuna Tolosaldeko gazteen lehiaketa.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. rbola lorategiak, 3.943 69 11 30.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi 6 behe, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean hodei asko izango dira zeruan eta tarteka zaparrada txikiren bat izango da. Ondoren, eguerdian eta arratsaldeko lehen orduetan giro ateria nagusituko da eta zerua zertxobait arinago agertuko da. Gauean berriz ere hodeiak nagusitu eta euritara joko du. Ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da, gauean hego-mendebaldera egingo duelarik. Tenperatura jaitsi egingo da, 11-13 graduan joz goia.

Bihar. Goizean hodei asko izango dira eta oraindik euri zaparradaren bat edo beste izango da. Eguerditik aurrera atertu eta ostarte txikia batzuk zabalduko dira, egunaren bigarren zatia lasaia izango delarik. Haizeak ipar ukitua izango du, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuz. Tenperatura igo egingo da, 13-15 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Bandalismo ekintzak» salatu dituzte herritarrek

Uzturpe ikastolak eta Ibarrako Udalak deituta, elkarretaratzea egin dute Ibarrako plazan, asteburuan gertatutakoa gaitzesteko



Ibarrako plazan, atzo egin zuten elkarretaratzea. L. CARRASCO

Leyre Carrasco Ibarra

Babes mezuez bete zuten atzo arratsaldean Ibarrako plaza. Izan ere, asteburuan, Uzturpe Ikastolako kanpo espazio berrian izan diren «bandalismo ekintza larriak» salatzeke elkar-tu ziren herritarrek. «Kalte materialez gain, emakumeon aurkako mezu sexista, gogor eta iraingarriak egin dizkigute ikastolako hormetan, pertsonalizatuak, eta min handia egiteko intentzio argiarekin», kontatu dute.

Ikastolako komunitate osoak irmoki gaitzetsi ditu gertaerak eta esan du ez duela halakorik onartzen, «gure herriaren etorkizuna eta hezkuntza loratzen den espazioan, ikastolako eta bertako komunitatea herri honek duen altxorretako bat baita».

Hezkidetzan, errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako gizarte eraikitzen jarraitzeko konpromisoa berresten dutela esan dute. «Guztion artean eraikitzen ditugu balioak, eta horiek lan-tzea eta sendotzea da gure egin-

kizuna, ikasgeletan eta ikastolako espazio guztietan».

Ikastolako hezkuntza komunitatea anitza dela gaineratu dute, eta esan dute «elkarlana, elkar errespetatzea eta elkarbizitza» dituztela eguneroko ardatz. «Gaur, gure begi aurrean porrotaren irudia ikusi baldin badugu ere, oraindik sinisten dugu mundu hau eta herri hau aldatzeko hezkuntzak duen indarrean. Horrela jarraituko dugu, bat eginda eta indartsu, biharko gizarte hobe eta justuagoren alde».

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa	Atarikideek
17€	13€
35€	25€
51€	36€
56€	42€

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez